

# TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN: BEASAIN-ZUMARRAGA 25/05/2016

**Kokalekua:** Igartza Monumentu multzoa (Beasain)

**Iraupena:** 2 ordu eta erdi

## Parte hartzaileak

Izena	Udalerría	Elkarte/erakunde/...
Agustin Perez Nanclares	Beasain	Beasaingo Udala
Aitor Jauregi Larrañaga	Beasain	
Nikolas Barandiaran Contreras	Beasain	
Oihane Arruarte	Donostia	
Ana Ezeiza	Zerain	Zeraingo Udala
Pilar Amenabar	Ordizia	Ordiziako Udala
Asier Rodriguez	Ataun	Ataungo Udala
Araitz Eriz	Eskoriatza	
Adur Ezenarro	Ordizia	

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Izaskun Iriarte Irureta	Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
José Ramón Varela Balenciaga	Gipuzkoako Lurralde Antolakuntzako Arduraduna

## Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Aguirre Such	Paisaje Transversal
Ainhoa Lopez Eiguren	Inguru
Leire Zuazo Urkaregi	Inguru

## Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Izaskun Iriarte Iruretak, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariek eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenean 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-parte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenearen aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailerrerako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

### LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

## Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Ainhoak, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
  - o Paisaia
  - o Ingurune fisikoaren antolamendua
  - o Klima aldaketa
  - o Babestutako Naturguneak
  - o Korredore ekologikoak
  - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
  - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
  - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
  - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
  - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
  - o Hiriz hazkundera
  - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
  - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
  - o Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
  - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
  - o Bide-mugikortasuna
  - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
  - o Talde mugikortasun multimodala
  - o Eredu logistikoa
  - o Ura
  - o Energia

- Zeharkako alderdiak
  - o Genero ikuspegia, osasuna, euskara
  - o Lurraldeen arteko harremana
  - o Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Leirek:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Horretarako bi panel ditu talde bakoitzak, landutako ideiak adieraziko dituztena (post it bat, ideia bat) eta landuko duten gaiari buruz oinarrizko dokumentuan datozen ideiak adierazten direna. Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

### **Tailerraren emaitzak.**

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

#### 1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea

##### 1.1. Paisaia

1.1.1. Gai hau oso landua, oso arautua dago. Kasu batzuetan oztopo izatera bihurtu arte arautu da.

1.1.2. Paisaia babestu egin behar da.

##### 1.2. Orokorra

1.2.1. Eremu-berdeen babes orekatu bultzatzea, beraien garapen eta bizi-iraupena kontutan hartuz.

1.2.2. Babes-maila gorena edo babes figura legalen bat duten eremuak baldintza onetan daude, arazoa babes hori ez duten eremuetan dago.

1.2.3. Hiriko eta ez hiriko eremu berdeen arteko lotura bultzatzea ezinbestekoa ikusten da.

1.2.4. Puntu kritikoak: uholdegarritasuna eta ibaien berreskurapena.

## 2. Landa-ingurunea

### 2.1. Landa-inguruneko garapen ekonomikoa

2.1.1.. Baserrien mantenua azarora da: ura...

2.1.2. Jendea baserrietara bizitzera joan dadin eta hauen galera ekiditeko (gaur egun erortzen ari dira) politika edo laguntzak bultzatzea beharrezkoa da.

2.1.3. Baserriak babesteko flexibleago izan behar da: birgaitzean malgutasuna, baserriak etxebizitza bat baino gehiagotan zatitzeko aukera...

2.1.4. Oreak bilatu behar da aurrera joan ahal izateko.

### 2.2. Orokorra

2.2.1. Baserria jarduera ekonomikoa gisa babestu, estrategikoki bultzatu.

2.2.2. Gure lurraldean, landa-eremua da proportzio altuena duen lurzoru mota.

2.2.3. Landa-ingurunearen babesa gainerako politiken maila berean kokatu behar da edo garrantzia maila bera eman behar zaio

## 3. Hirigunea

### 3.1. Mugako herriak

3.1.1. Lurralde antolakuntza (LAG, LPP, LPS) eta plangintzako aurreikuspenen garapena eskalan egin behar da. Ezarritako aurreikuspenen kudeaketa eta jarraipen koordinatua.

3.1.2. Talde batean, mugako herrien plangintza bateratuaren aldeko eta kontrako iritziak azaldu dira.

3.1.3. Mugako herrien plangintza bateratutako mekanismoak ezarri behar dira.

### 3.2. Jarduera ekonomikoa eta lurraldea

3.2.1. Poligono industrialak edo industriak martxan jartzeko prozesua arindu.

3.2.2. Hazkunde berriak bultzatu beharrean, birsorkuntza lehenetsi behar da.

3.2.3. Birsorkuntzari buruz kontzientziatzea ezinbestekoa da.

### 3.3. Hiri hazkundera

3.3.1. Hazkunde espantsiboak barne (urbanizatuarena) birgaitzea mugatzen du.

3.3.2. Etxebizitza kuantifikazioa gehiegizkoa da (beste kasu batzuetan gutxiegiakoa)

## 4. Mugikortasun jasagarria eta azpiegiturak

### 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

4.1.1. Oinezko (eta bizikletentzako) azpiegiturak motordun ibilgailuenekin parekatu.

- 4.2. Bide-mugikortasuna
  - 4.2.1. Arazo handiena N-1
- 4.3. Talde mugikortasun multimodala
  - 4.3.1. Tren-saihesbidea. Lurralde-plangintza figura ezberdinen arteko koordinazioa, dokumentu batzuetan tren-saihesbidea agertzen da eta beste batzuetan ez.
- 4.4. Orokorra
  - 4.4.1. Eremu funtziona ez dago hain gaizki komunikatuta (trenka ondo funtzionatzen du).
  - 4.4.2. Garraio publikoak denbora asko hartzen du, beraz, hau ez da aukera erreal bat lanerako desplazamenduentzako.
  - 4.4.3. Trenen maiztasunen inguruan eztabaidatu da.
  - 4.4.4. Lan desplazamendu jasagarriak (Bidegorriak...) sustatu.
  - 4.4.5. Azpiegitura berrien aldeko apotua egin da, daudenak alde batera utziz (tren desplazamenduek pasa den mende hasieran beste irauten dute, geltokiak berdin daude...)
5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurralde-integrazioa eta parte hartzea
  - 5.1. Euskara
    - 5.1.1. Euskara sustut behar da osasun arloan (haur, nagusi...)
    - 5.1.2. Nola elkartzen dira LAGak eta euskara?
    - 5.1.3. Auzo berri handiak egin orde, auzo txikiak egin behar dira, gaur egungoetan integratuko direnak eta murgilketa sustatuko dutenak, euskara ez kaltetzeko.
  - 5.2. Parte hartzea eta gobernantza
    - 5.2.1. LAG, LPP eta LPSek eskutik joan behar dute. Koordinatuta.
6. LAGen berrikuspen prozesuari buruzko ekarpenak:

Lurralde-plangintzarako parte hartzea ezinbestekoa da, baina gai honen inguruan herritarrak ahalduntzeko aukera paregabe bat galtzen ari da. Horretarako, dibulgazio lan izugarria egin behar da (herritarrengana zuzenean heldu behar da), zein prozesu honetan falta den. "okinak" parte har dezan ahalegin handiagoa egin behar da.

LAGen berrikuspenerako oinarritzko dokumentuan planteatzen den lurralde ereduaren deskribapena falta da. Izan ere, gaien inguruan garatzen den dinamika egokia bada ere, oinarritzko dokumentuko aspektu edo proposamen batzuk ez dira zalantzan jartzen. Honekin lotuta, etxebizitza kuantifikazioa, udal-antolakuntzan eragin zuzena duen LAGen aspektu garrantzitsu bat, lerro artean ezkutatua geratzen da. Eztabaidatu beharko litzatekeen gai garrantzitsu bat da.